

Astekaria

Larrun

Gakoak

Bizi
Baratzea

TEKNOLOGIA BERRIAK

Euskorpus proiektuak hautsak harrotu ditu

Euskorpora elkartearen eta Euskorpus proiektuaren abiatzeak hautsak harrotu ditu. Pello Otxandiano EH Bilduko Eusko Legebiltzarreko oposizio buruak Euskorpusena akatsa dela uste du, "ezjakintasuna edo estrategia klientelarra". EH Bilduk galdera sorta egin du legebiltzarrean.

Sustatu



Artikulu hau *CC BY-SA 3.0* lizentziari esker ekarri dugu.

2025eko otsailaren 24an - 07:44



Inprimatu



Eusko Jaurlaritzak 5,5 milioi euro inbertituko ditu Euskorpusen. Imanol Pradales lehendakariak herenegun aurkezpenean esan zuenez,
""Euskorpusekin, Adimen Artifizialaren eta hizkuntzaren teknologien potentzial osoa euskararen, gure enpresen eta ikerketaren zerbitzura jartzen dugu. Gure gaitasun guztiak lerrokatuz eta lankidetza publiko-pribatutik egiten dugu".

Euskorpora izeneko elkarte bat sortu da Euskorpus kudeatzeko. Bertan "falta diren izenak" aipatu ditu Arantxa Iraola kazetariak Berrian.

Daudenak, Euskorpora gaur gaurkoz osatzen dutenak, hauek dira: Vicomtech, EREIL Technologies SL, Trebe Language Technologies, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, Baleuko, MIXER, EiTB, CAF, MCC, Petronor, Euskaltel Fundazioa, Kutxabank, PWC, eta Logikaline.

Eta falta diren izen batzuk, EH Bilduko Lore Erriondo parlamentariak aipatuak Eusko Legebiltzarreko

erregistroan sartutako idazkian:

Zergatik ez dira hasierarik gonbidatu EHU/UPVko HITZ zentroa, Langune-GAIA klusterra, Hekimen, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, Elhuyar Fundazioa (Jaurilaritza patronatuko kidea izanik), Euskal Zientzia eta Teknologia Sareko kideak edo BRTAko kideak beste hainbat kide?

Erriondoren idazkiko beste galdera batzuk:

- Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailak 5 milioi euro jarriko ditu EUSKORPUS proiektua garatzeko. a. Zein irizpideren arabera bideratuko dira 5 milioi euro horiek zuzenean Euskorpora erakundeari? b. Nola bermatuko du aukera-berdintasuna eta lehia askea?
- (...) Proiektuaren emaitzak libre jarriko dira? Publikoak izango dira? Nork merkaturatuko ditu?
- Noren jabetzakoak izango dira proiektuan garatuko diren baliabideak eta tresnak?

Pello Otxandianoren iritziz, "Hizkuntzaren teknologietan garatutako jakintza eta ezagutza alboratzen dira, eta honek gure nazioarentzat estrategikoa den esparru teknologiko bat gidatzeko ditugun aukerak neutralizatzen ditu". Hona Otxandianoren adierazpena bideoz:

Post by @pellootxandiano@mastodon.eus

View on Mastodon



Pello Otxandiano Kanpo

@pellootxandiano@mastodon.eus



Ezjakintasuna edo estrategia klientelarra.
Euskorpusenena akatsa dela uste dugu.

Hizkuntzaren teknologietan garatutako jakintza eta ezagutza alboratzen dira, eta honek gure nazioarentzat estrategikoa den esparru teknologiko bat gidatzeko ditugun aukerak neutralizatzen ditu.

youtu.be/FwOF2wppk04



YouTube

Pello Otxandianoren balorazioa Euskorpus proiektuaren harira

Egilea: Euskal Herria Bildu

2025 ots. 20(a) (13:32) · 🌐 · Web

15 bultzada · 16 gogoko

Goragoko argazkian, Julian Florez Vicomtecheko

zuzendaria Euskorpora aurkezten.



TEKNOLOGIA BERRIAK

EH BILDU

EUSKO JAURLARITZA

IRAKURRIENAK

Matomo erabiliz

- #1 **Bere etxearen aurkako erasoak salatu du Aritz Otxandianok, eta berriztagarriekin duen jarrerarekin lotu du**
ARGIA
- #2 **Frantziako lehen ministroaren alabak ere salatu du “bortizki jipoitu” zutela Betharrango ikastetxean**
Jenofa Berhokoirigoin
- #3 **Haur Hezkuntzako irakasleen %94 emakumeak dira**
Mikel Garcia Idiakez
- #4 **Madrilgo mugimendu ekologistan infiltratutako beste polizia bat atzeman dute**
Jon Torner Zabala
- #5 **“Guretzako mugarik ez dago eta horrela estreinatu behar zen: mugarik gabe”**
Gorka Peñagarikano Goikoetxea

Azoka



"Inor ez da ilegala" kaputxadun jertse beltza
32,00€

Kanal honetatik interesatuko zaizu: Teknologia berriak



2025-04-16 | Leire Artola Arin |
Onintza Irureta Azkune

Bortizkeria ikusgarri egitetik, ardura hartu eta erreparaziorako bideak antolatzera

Azken bi hamarkadetan
indarkeria matxistaren gaia
lehen lerrora ekarri du
mugimendu feministaren
borrokak, besteak beste, eta


bikote arteko indarkeria edo
“familia arazo” gisa
deskribatzen zenak, eremu
publikora eta kalera egin du
salto. Indarkeria
matxistaren... [\[+\]](#)



2025-04-10 | Eneko Imaz
Galparsoro

Microsoftek bi langile kaleratu ditu multinazionalak Israelekin dituen harremanak salatzeagatik

Bi langileek Microsoften 50.
urteurreneko ekitaldia moztu
zuten ostiralean, eta enpresako
buruei Gazako genozidioan
duten papera leporatu zieten.
Adimen artifizialarekin eginiko
armak saltzen dizkio
multinazionalak Israelgo
armadari.



2025-03-26 | ARGIA

Komunikazio modu onak aztergai izango dituzte Donostian

Nortasuna Sarean jardunaldien
10. edizioa egingo dute
asteazken honetan Donostiako
San Telmon, *KomunikaziONA*

bideguruatzean izenburupean.

Egungo komunikazio joerak aztertu eta "alternatiba osasuntsuagoak" topatzen saiatuko dira. Hainbat hizlari gonbidatu dituzte, euren... [\[+\]](#)



2025-03-26 | Diana Franco Eguren

TEKNOLOGIA

%2ko zapalkuntza

Orain dela 20 bat urte, berrikuntzaren inguruan master bat egin nuen. Bertaraturiko gonbidatu batek esan zigun gizakion historian berrikuntza teknologikoaren eragile handiena gerra izan zela. Gerra, halaber, eragile handia da botere harremanen berrikuntzan.

Berrikuntzaz ari... [\[+\]](#)

2025-03-20 | Iratzar Fundazioa

Komunikazioa aro digitalean

MULTIMEDIA - SOLASALDIA



2025-03-19 | Diana Franco Eguren

TEKNOLOGIA

Techbro go home

Aspaldi pertsona oso zatar bat ezagutu nuen, urrun izatea komeni den pertsona horietako bat. Bere genero bereko pertsonengana zuzentzeko, gizonezkoengana, “bro” hitza erabili ohi zuen. Edozein zapaltzeko prest zegoen, bere helburuak lortzeko. Garai hartatik hitz... [\[+\]](#)



2025-03-12 | Diana Franco Eguren

TEKNOLOGIA

Komentokrazia

Sare sozialetan badira zenbait pertsona eragin gaitasun handikoak. Jarraitzaile ugari dute, eta euren iritziak egiaztat hartzen dira. Askok, ordea, egia barik, interes

propioa edo klase baten interesak iraunkortzea bilatzen dute. Ameriketako komentokrata deitzen zaie. Alegia,... [\[+\]](#)



2025-03-05 | June Fernández

MELOI SALTZAILEA

toXic

Ortutik itzuli berritan erabaki nuen Twitterretik alde egitea, oraindik Twitter zenean. Auzolan batera joan nintzen, brokoliak eta azaloreak landatzera, eta *mindfulness* efektua zapuztu zidan algoritmoak, idazle feminista transgorrotatzaile baten txioak jaurtitzearekin... [\[+\]](#)



2025-03-05 | Diana Franco Eguren

TEKNOLOGIA

Hildakoen txatbotak

Iragana ulertzen saiatzen eta etorkizuna bideratzen, oraina joaten zaigu zenbaiti. Nire proiektuetako bat (hasi baina landu ez dudana oraindik) dudana zuhaitz genealogikoa egitea da. Horretan lagunduko didan liburutxo bat ere erosi nuen. Baina, hain da handia lana, liburutxoa... [\[+\]](#)



2025-03-05 | Asier Iturralde
Sarasola | Hodeia ez da
existitzen

Animaziozko Film Onenaren Oscarra software librearekin sortutako 'Straume' pelikulak irabazi du

Gints Zilbalodis zuzendari
letoniarraren *Straume* filmak

irabazi du 2025eko
Animaziozko Film Onenaren
Oscar Saria. Pixar eta
Dreamworks estudio handiei
aurea hartu dien filma 3D
irudigintzarako software libreko
Blender tresna erabiliz sortu
dute.



2025-02-25 | Gorka
Peñagarikano Goikoetxea

TikTok, X eta Instagrameko algoritmoek eskuin muturreko edukiak nabarmen hedatzen dituztela frogatu dute

Ikerketa bat egin dute
Alemanian, hauteskunderen
atarian: kontuak sortu dituzte
TikToken, X-n eta Instagramen,
eta aztertu egin dute
algoritmoak zer nolako edukiak
erakusten dituen. Guztietan,
algoritmoak eskuinera eta
eskuin muturrera jotzen du
gehien, TikToken nabarmen.



2025-02-21 | Olaia L. Garaialde

Bideojokoen erabilera handitu egin da helduen artean, Ipsosen arabera

Julen Linazaroso Macsonrisas-eko kideak azaldu duenez, sari-boleak, harrapakin-kutxek eta enparauek bideojokoetan ordu gehiago jokatzeari dute helburu. 35 eta 64 urteko pertsonen artean bideojokoen erabilerak gora egin du 2023tik 2024ra, lpsosek emandako datuen arabera.



2025-02-20 | Sustatu

Euskorpora elkartea eta Euskorpus aurkeztu dituzte

Euskorpora elkartearen aurkezpen ekitaldi jendetsua izan da asteazkenean Donostian, eta Euskorpus izeneko egitasmoaren berri eman dute bertan. Euskorpus euskarazko hizkuntza baliabide digitalen banku bat izango da, eta 5 milioi pasa inbertituko ditu Eusko Jaurlaritzak bertan.



2025-02-19 | Diana Franco Eguren

TEKNOLOGIA

Hezkuntza sistemaren ahots bateratua

Boterea eskuratzeko modu asko dago; denak ez dira politak. Bada boterea eta horrek berarekin dakarren erantzukizuna banatu nahi duenik, agintea bilatzen duenik. Beste batzuek errespetu larri diote eta pauso bakoitza hainbeste neurtuta ez dira gai erabakirik hartzeko. Boterea zer... [\[+\]](#)

2025-02-19 | Tranbia txiki guraso elkartearen zuzendaritza batzordea

Pantailen erabileraren inguruko hausnarketak

Tranbia txiki Arratia Institutuko Guraso Elkartetik pantailen erabileraren inguruko hausnarketa bultzatu nahi dugu ikas komunitatean.

Azkenaldian kezka handia dago ume eta nerabeengan pantailek duten eragina dela eta. Ardura hori etxeko erabileratik eskola eta institutueta... [\[+\]](#)



CC BY-SA

Edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



SAREKO KIDE



Ekoedizioaren Institutuko

bazkide

Astekariaren aztarna ekologikoa

JARRAITU



LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

FUTUROA ERABILTZEKO
PUNTUA 2014

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



ARRASATEKO UDALA



metzagaiña



ADUR
software
productions

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ARGIA

KONTAKTUA | EGILEAK | PUBLIZITATEA | RSS JARIOAK |
PRIBATUTASUN POLITIKA | WHAT IS ARGIA?